

1- Deskribapena

GertuKo, zerbitzu bat eskaintzeko sortu dugun enpresa da. Zerbitzu hau, pertsonen arteko harremanetan komunikazioa sustatzeko elkargune bezala ulertzen dugu.

Gaur egungo gizartea, informazioaren gizarte bilakatu da eta honek aldaketa nabarmenak ekarri digu gure bizi-ereduan. Aldaketa horietako bat, norbanakoaren indibidualizazioa izan da, hau da, pertsonen arteko harremanak bigarren maila batera igaro dira eta honek kideen arteko komunikazioan gatazkak ekarri ditu. Beraz, enpresa honen xede nagusia, gizarteko jendartearen komunikazioa hobetzea izango da.